

# Nazioarteko Batxilergoa

Nazioarteko Batxilergoko diploma (Nazioarteko Batxilergoko Erakundeak (OBI) ematen duena) ikasleak hainbat azterketetara bideratzen dituen unibertsitate aurreko prestakuntza da, hainbat hezkuntza sistema nazionalen baldintzak betetzeko aukera ematen dielarik.

Ikasketa programaren eredua ez da inongo herrialdean oinarritzen, baina hainbat herrialdeen elementu hoberenak integratzen ditu. Prestakuntza ingelesez, frantsesez edo gazteleraz egin daiteke (alemana eta txinera oraindik proiektu pilotuak dira), eta nazioarteko mugikortasuna duten ikasleak ikastetxe batetik bestera lekualdatu daitezke.

2 ikasturtetan banatzen da:

- . EM (erdi-maila), 150 eskola-ordu.
- . GM (goi-maila), 240 eskola-ordu.

## Irakasgaiak

Ikasle bakoitzak 6 irakasgai aukeratu beharko ditu (horietako 3 edo 4 goi-mailakoak izango dira), ondorengo atal bakoitzeko irakasgai bat hartuko duelarik:

### 1.- A1 hizkuntza

Ikaslearen lehenengo hizkuntza, literatura unibertsaleko hainbat lan ikasi behar dira. 80 hizkuntza baino gehiagorako azterketak egin daitezke.

### 2.- A2 hizkuntza

Bigarren hizkuntza modernoa. Hainbat aukera eta maila daude, prestakuntza ikasleen ezagutzara moldatuko da: hasiberriak, hizkuntza apur bat ezagutzen duten ikasleak eta adierazpen maila altua duten ikasle elebidunak.

### 3.- Matematika

Goi-mailako matematika, azterketa eta metodo matematikoak, erdi-mailako matematika aurreratua, informatika... Helburua matematikaren ulermena garatzea da, eta baita matematikaren lengoaiaren erabilera erraztea eta sustatzea ere.

### 4.- Gizabanakoa eta gizarteak

Historia, geografia, ekonomia, fisiologia, psikologia, gizarte antropologia, enpresa eta antolakuntza, gizarte globalaren informazioaren teknologia, mundu islamikoaren historia...

### **5.- Zientzia esperimentalak**

Biologia, kimika, fisika, ingurumen sistemak, diseinuaren teknologia... Laborategiko praktikak egiten dira eta taldean egindako diziplina anitzeko proiektua eginez, talde lana sustatuko da.

### **6.- Artea eta hautazkoak**

Artea/diseinua, musika, arte dramatikoak, dantza eta zinema. Ekoizpenak garrantzia handia izango du, baita testuinguru globalean egindako sormen artistikoko hainbat lanen azterketa ere.

Aukeratutako 6 irakasgaiak ondorengo derrigorrezko blokean garatuko dira:

#### **. Monografia**

Ikasleek ikerketa original bat egin eta ondoren 4000 hitzeko monografia idatzi beharko dute, horretarako 57 gai izango dituzte aukeran.

#### **. Ezagutzaren teoria**

Diziplinarteko prestakuntza da, ezagutzari buruzko gogoeta kritikoa eta eskolan zein eskolatik kanpo lortutako esperientzia estimulatzea helburu duena.

#### **. Sorkuntza, ekintza eta zerbitzua**

Antzerki produkzioetan, kiroletan eta komunitaterako zerbitzuetan parte-hartzea.

## **Ebaluazioa**

Irakasgai bakoitzaren azterketetan 1etik 7rako nota emango da, guztira, gutxienez, 24 puntu lortu behar direlarik.

Sei irakasgai baino gutxiago hautatu edo diploma lortzeko behar diren baldintzak betetzen ez duten hautagaiek, gainditutako azterketengatik ziurtagiria lortuko dute.

Azterketak maiatzean izango dira, azaroan beste deialdi bat egingo delarik. Ikasturte bakoitzean % 70-80k gainditzen du.

## **Titulazioa**

Nazioarteko Batxilergo titulua entzute handiko unibertsitateetara sarrera ematen duen titulu aitortua da, esaterako, Oxford, Cambridge, Harvard, Yale, Heidelberg eta Sorbona.

Ikasketa hauek Espainian arazorik gabe baliozkotu daitezke, bertako unibertsitateetarako sarrera zuzena delarik.

## **Zentroak**

Bizkaia: Gaztelueta Ikastetxea. Leioa

Gipuzkoa: Usandizaga-Peñafolrida-Amara BHI. Donostia

## **Intereseko loturak:**

[ibo](#)

[Nazioarteko batxilergoa. Baliokidetasunak](#)

[Nazioarteko batxilergoak. Homologazioak](#)